

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektua martxan jartzeko, kaleetan, egunkarietan, albistegietan eta telebistan iragarkiak jarriko ditugu. Horretaz aparte, adingabekoak gure lokaletara etorri behar dira, bestela gure enpresa ez da izango produktiboa. Irekitzeko baimena, beharrezkoa da, horregatik udaletxeari baimena eskatu behar izango diogu ireki ahal izateko.



Gure lokalak alokatzeko arazoak izaten baditugu, eskaria eta eskaintza legea erabiliko dugu, hau da, eskari handia badago, prezioa igoko dugu, baina eskari gutxi badago, prezioak jaitsiko ditugu. Horrela, uste dugu ez ditugula izango arazoak adingabekoekin.

Interneten, webgune bat irekiko dugu. Han, lokaletako informazioa eskaini eta lokalak Internetetik alokatzeko aukera emango diegu. Naiarak sare orria egiteko arduraduna izango da, berak ondo kontrolatzen duelako eta beste webgune batzuk egin dituelako.

